

## Euzko Gaztedi EGiko emakumeon Martxoaren 8ko manifestua

Hamarkadetan zehar, anitz eta esanguratsuak izan dira mugimendu feministak emakumeen aitorpenean egindako aurrerapenak. Nazio Batuen Erakundeak martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Egun izendatzea ere aurrerapauso bat gehiago izan zen bide malkar horretan.

Horiek horrela, mundu guztiarekin baturik, ozen eta lau haizetara honakoa aldarrikatzen dugu:

- Parekidetasuna lortzeko eskubidea dugula, berezkoa dugula eta hori ez dela opari bat eta ez eskaintza bat.
- Parekidetasunaren alde tinko eta elkaturik arituko garela guztiak.

Badakigu, eta ondo jakin gainera, emakumeak gaurko maila eskuratzeko bidea ez dela xamurra izan. Historian, baita gure historian ere, garai oso zailak bizi izan ditu gizartearen erdiak.

Gogoan ditugu, urteetan, baldintza zailetan, gaur egun egoera hobea izateko lan eta borroka egin duten pertsona guztiak; eta, bereziki gure amak, amonak eta etxeoandre guztiak:

- Baldintza eskasetan – eta askotan, kanpoan lan eginez- etxea eta etxeoak aurrera ateratzeagatik.
- Gu guztion alde bere bizitza eskaintzeagatik.
- Beren denbora, ametsak, ilusioak eta aukerak sakrifikatzeagatik.
- Beren ereduarekin parekidetasunerako bidea zabaltzeagatik.
- Emakumearen balioa erakutsi eta aldarrikatzeagatik.
- Eta gu gaur hobeto izateko egin duten guztiagatik.

Hemen gaudenok aitortzen dugu gure aberriak aurrera egin duela bide honetan, baina oraindik gehiago aurreratu behar dugu:

- Neska eta mutilei, gizon eta emakumeei, eskaintzen zaizkigun bizimodua, etorkizuna eta aukerak, oraindik, sarri, ez dira berdinak, ez dira parekoak.
- Neskak, oraindik, etxeo lanak egiteko edo etxeo karga handiena hartzeko hezten dira.
- Neskek eta emakumeek etxetik atera eta kalean ibili eta erlazionatzeko eskubidea dugu; baina ezin izaten dugu lasai ibili.

- Giza Eskubideak gizonen eskubideak dira oraindik gure herrian.
- Neskek eta emakumeek beren buruen jabe izan behar dute; baina, sarritan, gizonen menpe daude.
- Gizonak, euren erosotasunetik atera behar dute eta horretarako instituzioek ere kolektibo bezala hartu behar dituzte. Gizonak oro har ez dira berdintasun planetan euren gain lan egiteko subjektu bezala hartzen. Berdintasun neurrietan oro har emakumeoi jartzen zaigu sufritzen dugun berdintasun eza iraultzearen ardura, eta guri zuzentzen zaizkigu ia soilik plan ezberdinetan sustatutako neurriak: tailerrak, ahalduntzeko neurriak,... hauek beharrezkoak diren eta txalotzen ditugun arren, gizonen gainean kolektibo bezala jardutea ere eskatzen dugu, eurak subjektu bezala hartuz eta eurak ere berdintasun ezatik jasotzen dituzten onurak identifikatu eta aurre egin diezaieten: gizontasun eredu berriak landuz, espazioak lagatzeko neurriak proposatuz... ezin dira lasai geratu.

Euzko Gaztediko emakumeak, abertzale eta humanista garen neurrian, ezin diogu kalean emango diren mobilizazio desberdinetan egoteari utzi. Humanistak garen neurrian, eta hainbat erreferente feministek esan bezala, guk ere Feminismoa humanismo mota bat dela aldarrikatzen dugu. Beraz, bat egiten dugu mugimendu feministen aldarrikapenekin. Abertzale garen neurrian, argi daukagu ez dugula izango aberri askerik, emakume aske eta ahaldundurik gabe, emakume eta gizonen arteko parekidetasunik gabe alegia. Hori hala izanda, Euzko Gaztedik adierazi nahi du guztiz bat datorrela biharko aldarrikapenekin eta publikoki agertu nahi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politiketan aurrera egiteko duen konpromiso irmo eta sendoa. Gizarte parekide formaletik, gizarte parekide erreala lortu nahi dugu.

## **Manifiesto de las mujeres de Euzko Gaztedi el 8 de Marzo**

Son numerosos y significativos los avances que los movimientos feministas han generado durante décadas. La decisión adoptada por la Organización de Naciones Unidas de declarar el 8 de Marzo Día Internacional de las Mujeres es uno de los avances producidos en la tortuosa senda hacia la igualdad.

Ante todo ello, junto con el resto de colectivos, proclamamos alto y claro que:

- Tenemos el derecho de vivir en una sociedad paritaria, porque es como ha de ser. No es un regalo ni nada que se nos pueda ofrecer.
- La defensa de dicha sociedad paritaria nos encontrará unidas y fuertes.

Somos conscientes de las dificultades y avatares que nos han traído a la situación actual de la mujer. En la historia, también en nuestra historia, esta mitad de la sociedad ha vivido tiempos muy difíciles, etapas muy duras.

Recordamos, por ejemplo, a todas las personas que lucharon denodadamente por conseguir una vida mejor, para llegar al punto en que nos encontramos; y especialmente nuestras madres, abuelas, todas las amas de casa:

- En condiciones precarias -en casa y en muchas ocasiones, fuera de casa- con el único objetivo de sacar la familia adelante.
- Por ofrecer toda su vida por nosotras.
- Por sacrificar su tiempo, sus sueños, ilusiones y oportunidades.
- Por abrir, con su ejemplo, el camino a una sociedad paritaria.
- Por mostrar y reivindicar el valor de las mujeres.
- Y por todo lo que han dado porque nosotras estuviéramos hoy en una mejor situación.

Las mujeres reunidas hoy aquí declaramos que nuestra patria ha avanzado mucho en el camino de la igualdad, pero hemos de avanzar aun más:

- El modo de vida, el futuro, las oportunidades que se nos ofrecen a chicas y chicos, a mujeres y hombres, siguen sin ser iguales, no son igualitarios.
- Las chicas son educadas con una mayor responsabilidad de realizar las tareas domésticas.

- Las chicas y mujeres tenemos el pleno derecho de salir y relacionarnos con quien consideremos; pero no solemos poder andar tranquilas.
- Los Derechos Humanos siguen siendo derechos de los hombres.
- Las chicas y mujeres han de ser dueñas de su vida; pero en ocasiones, están bajo el dominio de los hombres.
- Los hombres han de salir de su zona de confort y las instituciones han de tomarlos como colectivo. Los hombres, en general, no se consideran sujetos sobre los que actuar en planes de igualdad. En las medidas para lograr la igualdad se nos adjudica a las mujeres la responsabilidad de invertir la desigualdad que sufrimos y se nos dirigen casi en exclusividad las medidas impulsadas en los diferentes planes: talleres, medidas de empoderamiento,... Aunque consideramos que todas esas medidas son necesarias, y las aplaudimos, también solicitamos que se actúe sobre el colectivo de los hombres, tomándolos como sujeto, e identifiquen los beneficios que les procura la falta de igualdad y se enfrenten a ellos: impulsando nuevos modelos de masculinidad, proponiendo cesión de espacios... no pueden quedarse al margen.

Las mujeres de Euzko Gaztedi somos abertzales y humanistas, y no podemos quedarnos al margen de las diferentes movilizaciones que se produzcan en las calles. En tanto que somos humanistas, y tal y como lo han expresado feministas de referencia, nosotras también reivindicamos que el Feminismo es una forma de humanismo. Por lo tanto, nos adherimos a las reivindicaciones de los movimientos feministas. Por otra parte, en cuanto a abertzales, consideramos que no tendremos la patria libre que ansiamos sin mujeres libres y empoderadas, sin una sociedad paritaria. Así las cosas, Euzko Gaztedi quiere declarar que asume totalmente las reivindicaciones de mañana y declara el compromiso firme e inequívoco de avanzar en las diferentes políticas para la consecución de la igualdad entre hombres y mujeres. Partiendo de una sociedad paritaria formal, queremos conseguir una sociedad paritaria real.